

Kudeaketa aurreratuaren bidezko enpresa- lehiakortasunaren hobekuntza



INNOBIDEAK-KUDEABIDE PROGRAMA

Enpresen LEHIAKORTASUNA hainbat alderditan oinarritzen da, BERRIKUNTZAREN eta aktibo ukigarri zein ukiezinen KUDEAKETA zuzenaren funtsezko zutabeak nabarmentzen direla.

INNOBIDEAK-KUDEABIDE programaren helburua **euskal enpresen lehiakortasunaren hobekuntza sustatzea da, Kudeaketa Aurreratuko metodologiak, bitartekoak eta printzipioak aplikatzea eta ezartzea lagunduz**, eta hasierako kontrastea eginda eta proiektu pilotuak eta/edo kontsolidazio-proiektuak garatuta.



Nork har dezake parte?

Erauzteko, eraldatzeko, ekoizteko eta zerbitzu teknikoetako jarduerak egiten dituzten 5 langile edo gehiagoko enpresak, beren ekoizpen-prozesuarekin lotutakoak, eta informazio- eta komunikazio-gizartearen arlokoak.

Programen fasea

1. Fasea

HASIERAKO KONTRASTEAK

Enpresaren kudeaketaren gaineko kontraste zehatza osatu beharko dute, lehia-hobekuntzarako erabakiak hartzea ahalbidetu behar duena, proiektuaren Kudeaketa Aurreratuaren Ereduaren erreminta erabilita.

Hasierako kontrastea Euskaliten eta Ebaluatzaileen Klubeko kide diren enpresa-zuzendari kudeaketan adituen laguntzaz gauzatuko da.

50 langile edo gehiagoko enpresek, Kontrastearen ordean, **Kudeaketa Diagnostiko baliokide** bat aurkeztu ahaliko dute.

2. Fasea

A. PROIEKTU PILOTUAK

Kudeaketa aurreratuko metodologiaren aplikazio praktikorako proiektu pilotuak gauzatzea, hasierako kontrastean hautemandako kudeaketa-esparru batean edo batzuetan gaituta. Metodologiak autoprestakuntza, aurrez aurreko saioak eta proiektu pilotuen osaera uztartzen ditu.

B. KONTSOLIDAZIO-PROIEKTUAK

Lehia-hobekuntzako proiektuak gauzatzea, **kudeaketa aurreratuko praktika kontsolidatuta**. Proiektu horietara bideratutako diru-laguntzak SPRIn (50 langile edo gehiagoko enpresentzat) eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien (5 eta 49 langile arteko enpresentzat) deialdi publikoen mende daude.



2014an

246 enpresak hartu zuten parte Kudeabide Programan, 81 kudeaketa aurreratuko proiektu pilotu eta 100dik gora kontsolidazio-proiektu lagundu ziren diruz.



Enpresarentzako onurak

Barne-gogoeta kanpoko talde kualifikatu batek aztertzea, jardunbide egokien adibideak ematen dituela.

Honako hauek jasoko dituen txostena:

- **Indarguneen eta hobekuntza-arloen txostena.**
 - **Kudeaketaren posizionamendu**-profila ereduko elementuekiko.
 - **Innobideak-Kudeabide Programan jarraitu beharreko bideari buruzko lehenestekoak.**
-

Euskalitek izendatutako aditu baten laguntza pertsonalizatua kudeaketa aurreratuko **proiektua pilotua (2A)** garatzeko, gaikuntzarekin eta beste enpresa parte-hartzaile batzuekin esperientzia-trukeak egitearekin uztartuta.

Kudeaketa aurreratuko kontsolidazio-proiektuen kasuan (2B), enpresak kanpo-laguntza aditua jaso beharko du, enpresak berak hautatuko duena.



Laguntzak

Hasierako kontrastea erabat doan egin ahalko dute enpresek eta 2 urteko balio-epea izango du.

Oinarrizko moduluek % 75eko diru-laguntza jasoko dute, eta **% 60koa, berriz, modulu aurreratuek, 2A. faseko proiektu pilotuak gauzatzeko.**

Kanpo-aholkularitzaren kostuen % 60ko DIRU LAGUNTZA jasoko dute kontsolidazio-proiektuek (2B), honako muga hauekin:

- Gehienez 6.000 euro 5 eta 49 langile arteko enpresentzat.
- Gehienez 25.000 euro 50 langile edo gehiagoko enpresentzat.

Ekintza-plan bat egitea, eredu normalizatuaren arabera, nahitaezko betekizuna da 2B. fasera igarotzeko. Kontsolidazio-proiektua.



Eskaerak egiteko epea

Hasierako kontrastea: **2015/05/29ra arte irekita**

Proiektu pilotuak: **2015/12/31ra arte irekita**

Kontsolidazio-proiektuak: SPRIren eta Foru Aldundien diru-laguntza deialdien arabera.

Informazioa eta eskaerak:
www.kudeabide.com

Kudeabide

Kudeabide programa Eusko Jaurlaritzaren, SPRIren eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien baterako proiektua da, Euskaliten laguntza duena.

